


KANALAK

Enpresa honek funtzionatzeko hainbat bide/kanal erabiliko dira.

Bezeroak herrialde azpigaratuei laguntzen dieten ONG-ak dira eta beraiekin kontaktu zuzena izango du. Plastikoa, ladriloa izatera pasatzen denean, ONG-etara eramango da eta beraiek herrialde azpigaratuetara bidaliko dute.



Enpresan egongo diren kanalak hauek izango dira:

- Web orrialde bat izango dugu; bertan, materialari buruzko beharrezko informazioa jarriko dugu eskuragarri, baita gure enpresaren funtzionamenduaren azalpen zehatzak eta zerbitzu desberdinen deskribapenak.

Bestalde, webgunetik aurrekontu pertsonalizatu baten eskaera egiteko aukera zuzena emango zaie bezero potentzialei. Bertatik egingo da salmenta eta gure ardurapean geratuko da materiala garraiatzea bezeroen helmugaraino.

Azkenik, enpresaren zuzendaritza taldeari buruzko informazioa eta enpresak aurretik bultzatutako egitasmo eta proiektuen berri jakin ahalko dute webguneko bisitariek gurekin harremanetan jarri aurretik.

- Telefono zenbaki bat izango dugu; telefono hau edonoiz deitu eta gure enpresarekin kontaktuan jartzeko izango litzateke. Bezeroek telefono honetatik ere eskubidea izango dute beraien eskaerak egiteko. Pertsona bat egongo da konkretuki mugikorraren menpe. Mugikorraren zenbakia gure sare sozial guztietan egongo da ikusgai, baita web gunean ere.

- Poligonoa; Enpresak poligono bat izango du eta bertatik eramango dugu materiala.



- Sare sozialak ere gure enpresako funtsezko baliabide bat izango lirateke; besteak beste instagram, facebook, twitter eta beste hainbat.

Bertan gure helburuen argazkiak eskegiko ditugu eta beharrezko azalpenak emango ditugu. Gure bezeroek zalantzaren bat baldin badute, sare sozialetatik ere idatzi eta gurekin kontantutan jarriz beraien zalantza guztiak argitu dezakete.

- Email- a: Emailleko kontu bat sortuko dugu. Bertan, bezeroei materialari buruzko informazio zehatza emango zaie eta gure produktuaren segimendua egingo genuke bezero bakoitzari email bidez.

